



**AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ KONTSULTA PUBLIKOA
EGITEN ZAION EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ITUNPEKO IKASTETXE
PRIBATUETAKO HEZKUNTZA-ITUNEN ARAUBIDEA ETA ORDAINKETA
ESKUORDETUAREN SISTEMA ARAUTZEN DITUEN DEKRETU BERRIARI**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak hasiera emango dio Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatueta hezkuntza-itunen araubidea eta ordainketa eskuordetuaren sistema arautzen dituen dekretua egiteko prozedurari.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Itunen Araudia irailaren 8ko 293/1987 Dekretuaren bidez onartu zen. Hirugarren xedapen iragankorra aplikatuz onetsi zen urriaren 19ko 289/1993 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatueta ordainketa eskuordetuaren sistema ezartzea arautzen zuena. Dekretu hori aldatu zuten uztailaren 27ko 395/1995 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatueta ordainketa eskuordetuaren sistema ezartzea arautzen zuen Dekretua aldatu zuenak, eta ekainaren 30eko 127/1998 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatueta ordainketa eskuordetuaren sistema ezartzea arautzen zuen Dekretua bigarren aldiz aldatu zuena.

Araudia onartu zenetik izan diren arau-aldaketek, aldaketa demografikoek, azken urteetako EAEko jaiotza-tasaren jaitsierak, ikasleen gero eta aniztasun handiagoari erantzuteko beharrak eta aniztasun horrek sortzen dituen erronka eta zailtasun berriei ekitatiboki laguntzeko beharrak, baldintza sozioekonomiko kaskarrak dituzten ikasleei hezkuntzarako eskubidea bermatzeko betebeharrak eta hezkuntza-laguntza behar duten ikasleak ikastetxeen artean modu egoki eta orekatuan banatzeko betebeharrak gomendatzen dute itunen araubidea berrikustea eta eguneratzea, derrigorrezko eta doako oinarrizko irakaskuntzan itunpeko irakaskuntza pribatuaren eta irakaskuntza publikoaren arteko berdintasun-koexistentzian oinarrituta, bi irakaskuntza-sareek osatzen baitute hezkuntza-zerbitzua emateko erregimen duala, ikastetxe publiko eta pribatu itunduen eskaintza eta gizarte-eskaria kontuan hartzen duena.

Egin nahi den arau-egokitzapena edo -eguneratzea honakoek eskatzen dute: Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren IV. tituluak (Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak aldatua), Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak eta Hezkuntzaren 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duen abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak. Era berean, asko da hainbeste urtetan zehar emandako jurisprudentzia, zalantzarik gabe sistema aberasten eta argitzen laguntzen duena.



Ordainketa eskuordetuaren sistemari dagokionez, ezarri zenetik igarotako denbora eta urteetan metatutako esperientzia kontuan hartuta, komeni da funtzionamendu-erregimenean hobekuntzak sartzea eta konplitu beharko diren betebeharrekin bat datorren araubidea aplikatzea, hori guztia kudeaketa errazteko.

Horregatik, Autonomia Estatutuaren 16. artikulua Euskal Autonomia Erkidegoari aitortzen dion eskumena erabiliz, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuetako hezkuntza-itunen araubidea eta ordainketa eskuordetuaren sistema arautuko dituen dekretu berri bat egiteko prozedura hasteko asmoa du.

Xedapen arau-emaile orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartzen dituen 2017ko abenduaren 12ko Gobernu Kontseiluaren Erabakiaren bidez, alde aurreko kontsulta-izapidea ezarri zen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 133 artikulua 1. apartatua xedatutakoa betetzeko, zehazki, herritarrekin elkarreragiteko izapideari bidea emateko, zeina arau-testu juridiko jakin bat onartu aurretik egin behar den.

Alderdi hauek bildu behar ditu kontsultak:

- Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- Ekimena onartzeko premia eta aukera.
- Arauaren helburuak.
- Egon daitezkeen konponbide arautzaileak eta ez-arautzaileak.

Aurrekoa betetze aldera, Euskal Autonomia Erkidegoan hezkuntza-itunen esparru arautzailea ezartzearen garrantzia kontuan hartuta, egoki eta komenigarri ikusten da etorkizuneko lege esparru horrek eragin diezaiekeen herritar eta entitateei, gonbit egitea beraien iritzia emateko jarraian zehazten den eranskinean jasotako informazioari buruz, Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoko iragarki-taulan argitaratzen denetik hogeit egun balioduneko epean. Ekimena, araua egin aurretik egiten da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 4. eta 5. artikuluek arautzen duten hasierako fasearen barruan.

Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak esleitutako eskumenen arabera, hauxe

**EBAZTEN DUT**

Lehenengoa.- Ekimena gauzatu baino lehen, Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuetako hezkuntza-itunen araubidea eta ordainketa eskuordetuaren sistema arautzen dituen dekretu berriaren alde aurreko kontsulta izapidetzea.

Bigarrena.- Arauak ukitutako herritarrek, erakundeek eta entitateek, hala iritziz gero, Aginduenaren eranskinean planteatutako alderdiei buruzko iritzia helaraz ditzakete Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atariaren bidez, hogeia egun balioduneko epean, argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Hezkuntzako sailburua

Jokin Bildarratz Sorron
(Sinadura elektronikoa)



**ERANSKINA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ITUNPEKO IKASTETXE
PRIBATUETAKO HEZKUNTZA-ITUNEN ARAUBIDEA ETA ORDAINKETA
ESKUORDETUAREN SISTEMA ARAUTZEN DITUEN DEKRETUAREN ALDEZ AURREKO
KONTSULTA**

<i>I. EKIMENAREN BIDEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK.</i>	1987an Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Itunen Erregelamendua onartu zenetik izan diren arau-aldaketek, aldaketa demografikoek, azken urteetako EAEko jaiotza-tasaren jaitsierak, ikasleen gero eta aniztasun handiagoari erantzuteko beharrak eta aniztasun horrek sortzen dituen erronka eta zailtasun berriei ekitatiboki laguntzeko beharrak, baldintza sozioekonomiko kaskarrak dituzten ikasleei hezkuntzarako eskubidea bermatzeko betebeharrak eta hezkuntza-laguntza behar duten ikasleak ikastetxeen artean modu egoki eta orekatuan banatzeko betebeharrak gomendatzen dute itunen araubidea berrikustea eta eguneratzea, Ordainketa eskuordetuaren sistemari dagokionez, 1995ean ezarri zenetik igarotako denbora eta urteetan metatutako esperientzia direla-eta, komeni da funtzionamendu-erregimenean hobekuntzak sartzea eta konplitu beharko diren betebeharrekin bat datorren araubidea aplikatzea, hori guztia kudeaketa errazteko.
<i>II.EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZA LEGE- AURREPROIEKTUA ONARTZEKO BEHARRIZANA ETA AUKERA.</i>	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko apirilaren 27ko Aginduaren babesean izenpetutako itunen indarraldia ikasturte honetan amaituko da. Agindu horren bidez, hezkuntza-itunak berritzeko eta 2016-2017 eta 2021-2022 bitarteko ikasturteetarako itun berriak izenpetzeko deialdia egin zen. Ondorioz, beste deialdi bat egin behar da 2022/2023 ikasturtetik 2027/2028 ikasturtera bitarteko aldirako. Horregatik, eta onartu zenetik igarotako denbora ikusita, komenigarria da itunen oinarri juridikoa den araudia eguneratzea.



	Bestalde, ordainketa eskuordetuaren sistemaren ezarpenak irailaren 8ko 293/1987 Dekretuaren (Itunen Erregelamendua) hirugarren xedapen iragankorrean jatorria duenez, egokitze jotzen da bi dekretu arautzaile horiek dekretu bakar batean eguneratzea; horrela, dekretu horrek argiago jasoko luke itunak modu integralean arautzea.
III. AURREPROIEKTUAREN HELBURUAK.	a) Egungo erregulazioa aldatuko duen, hala badagokio, eta eguneratuko duen lege-esparru berri bat prestatzea. b) Itun-eredua modernizatzeko prozesu bat egitea, gizarte-eraldaketekin bat datorrena. Eraldaketa horiek eragina dute itunpeko irakaskuntza pribatuaren eta irakaskuntza publikoaren arteko bizikidetzan eta berdintasunean, derrigorrezko eta doako oinarrizko irakaskuntzan. c) Hezkuntza-sistemaren bilakaerarekin bat datorren egitura eta hitzarmen-eredua bultzatzea.
IV.- EGON DAITEZKEEN KONPONBIDE ARAUTZAILE ETA EZ- ARAUTZAILEAK.	Printzipioz, ez dago alternatiba ez-arautzailerik gaur egungo erronkei aurre egiteko eta itun-sistema lehen deskribatutako baldintzetara egokitzeko. Aukera bakarra –arestian azaldutakoagatik egokitze jotzen ez dena– honako hau izango litzateke: itunen Erregelamendua onartu zuen irailaren 8ko 293/1987 Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuetan ordainketa eskuordetuaren sistema ezartzea arautzen duen urriaren 19ko 289/1993 Dekretua indarrean mantentzea, baina horrek berekin ekarriko luke gai garrantzitsu hori arautzen jarraitzea antzinako arau-esparru baten bidez, juridikoki eguneratzeko eta testuinguru sozialera egokitzeko premia duena, eta uko egitea itunen erregulazio integral eta argigarria izateari dekretu bakar baten bitartez.